Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

BALDINTZA TEKNIKOAK

ELIAS QUEREJETA ZINE ESKOLA – EQZE ZUZENDARITZA AKADEMIKOA

PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS

DIRECCION ACADEMICA DE LA ESCUELA DE CINE ELIAS QUEREJETA ZINE ESKOLA – EQZE

EQZE OHAR OROKORRAK

CONSIDERACIONES GENERALES EQZE

I. AURREKARIAK

2018-2019 ikasturtean hasi zen "Elias Querejeta Zine Eskola - EQZE" zine eskolaren ibilbidea.

EQZE Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol departamentuari atxikita dago, Zinema Eskolaren sustatzailea den aldetik.

Eskolak, 2019-2020 ikasturteaz geroztik, UPV/EHUren zentro atxikiaren aitorpena du eta horrek esan nahi du EQZEn ematen den prestakuntza ofiziala dela eta Euskal Herriko Unibertsitateko berezko edozein masterren balio bera duela.

II. ESKOLAREN DEFINIZIOA.

Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE) zineari buruzko prestakuntza, ikerketa, praktika esperimental eta berrikuntza pedagogikorako zentro bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortua eta finantzatua eta Euskadiko Filmategiaren, Donostiako Zinemaldiaren eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren jakintza arloetatik abiatzen dena.

III.- KOKAPENA

EQZE Tabakalerako eraikinean kokatuta dago, eta, hasierako ikuskeratik, integratu egiten du modu organiko eta bakarrean eraikinean bertan dauden ikus-entzunezkoei lotutako hiru erakundeen ezagutza esparruak: Euskadiko Filmategiarena, Donostiako Zinemaldiarena eta Tabakalera kultur proiektuarena berarena.

I. ANTECEDENTES

El curso 2018-2019 inició su andadura la escuela de cine “Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE”.

La EQZE está adscrita al Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de esta Diputación Foral de Gipuzkoa, en tanto que impulsora de la Escuela de Cine.

La escuela, tiene desde el curso 2019-2020 el reconocimiento de centro adscrito a la UPV/EHU, lo que supone que la formación impartida en EQZE tenga rango oficial, y sea equiparable, en todos los aspectos, a un máster propio de la Universidad del País Vasco.

II. DEFINICIÓN DE LA ESCUELA.

La escuela de cine “Elías Querejeta Zine Eskola” (EQZE) es un centro de formación, investigación, práctica experimental e innovación pedagógica en torno al cine creado y financiado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a partir de los campos de conocimiento de la Filmoteca Vasca, el Festival de San Sebastián y Tabakalera, Centro Internacional de Cultura Contemporánea.

III. UBICACIÓN

La EQZE se ubica en el edificio de Tabakalera, y desde su concepción inicial, integra de forma orgánica y única en el entorno, los campos de conocimiento de las tres entidades vinculadas al audiovisual presentes en dicho edificio: Filmoteca Vasca, el Festival de Cine de San Sebastián y el propio proyecto cultural de Tabakalera.

IV.- IRAKASKUNTZA ESKAINTZA ETA EZAUGARRIAK

Eskolako irakaskuntza eskaintza graduondoko hiru espezialitatetan gauzatzen da: Artxibo espezialitatea, Komisariotza espezialitatea eta Sorkuntza espezialitatea.

Graduondoko ikastaroek ikasturte oso bateko iraupena dute, espezialitatea edozein delarik ere.

A. Artxibo ikasketak.

Artxibo espezialitatearen xedea da ondare zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa identifikatu, sailkatu, zaharberritu eta zainduko duten espezialisten prestakuntza teorikoa eta praktikoa ahalbidetzea.

Artxibo ikasketak Euskadiko Filmategiaren lanekiko erlazio etengabean gauzatzen dira.

B. Komisariotza ikasketak.

Komisariotza espezialitatearen xedea da zinea eta ikus-entzunezko arteak helburu eta protagonista dituzten era guztietako programa, argitalpen, esku-hartze eta erakusketen kontzeptualizazio, garapen, kudeaketa eta hedapenaz arduratuko diren espezialisten prestakuntza teorikoa eta praktikoa ahalbidetzea.

Komisariotza ikasketak gauzatzen dira hura sortzen duten erakundeekiko hartu-eman profesionalean eta irakaskuntzakoan. Erakunde horiek, hala nola Donostiako Zinemaldia edo Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, eraikin berean kokatuta daude, eta proiektu oso desberdinetan lan egiten dute.

C. Sorkuntza ikasketak.

Sorkuntza espezialitatearen xedea da filmak eta ikus-entzunezko obrak egin gogo dituenaren prestakuntza teorikoa eta metodologikoa ahalbidetzea, bai eta esplorazio praktikoa ere. Espezialitateak ez ditu kontuan hartzen prestakuntza teknikoarekin loturiko alderdiak, baizik eta lan zinematografikoa edo ikus-entzunezkoa asmatze, garatze eta gauzatze prozesuekin zerikusia dutenak.

IV. OFERTA DOCENTE Y CARACTERISTICAS

La oferta docente de la escuela se concreta en tres especialidades de postgrado: especialidad de Archivo, especialidad de Comisariado y especialidad de Creación.

Los cursos de postgrado, en cualquiera de sus especialidades duran un curso académico completo

A. Estudios en Archivo.

La especialidad de Archivo se centra en la formación teórica y práctica de especialistas en la identificación, clasificación, restauración y preservación del patrimonio cinematográfico y audiovisual.

Los estudios en Archivo se realizan en constante interrelación con los trabajos de Filmoteca Vasca.

B. Estudios en Comisariado.

La especialidad de Comisariado busca la formación teórica y práctica de especialistas en la conceptualización, desarrollo, gestión y difusión de todo tipo de programas, publicaciones, intervenciones y exposiciones que tienen al cine y a las artes audiovisuales como objeto y protagonista.

Los estudios en Comisariado se realizan en contacto profesional y docente con las entidades que lo generan y que, en el mismo edificio, trabajan en proyectos muy distintos, tal como el Festival de Cine de San Sebastián o Tabakalera, en tanto que Centro Internacional de Cultura Contemporánea.

C. Estudios en Creación.

La especialidad de Creación se centra en la formación teórica y metodológica, además de en la exploración práctica, de quien desee realizar películas y obras audiovisuales. La especialidad no atiende aspectos relacionados con la formación técnica sino con los procesos de ideación, gestación y materialización de una obra cinematográfica o audiovisual.

Irakaskuntza jarduera hauen bidez egituratzen da:

a) Aurrez aurreko eskolak.
b) Proiektu pertsonalak garatzea.
c) Praktika profesionalak.

Irakaskuntza jarduerak, gainera, osagarri hauek izango ditu: Zinemaldiaren programa, Tabakaleraren ohiko programazio publikoa eta bestelako jarduera puntualak, hala nola bisitaldiak, irakaspen hitzaldiak, solasaldiak eta proiekzioak.

Irakaskuntzan komunikazio hizkuntzak euskara, gaztelania eta ingelesa dira.

EQZE-ren jarduera, aldi berean, hiru eremu hauek barne hartzen ditu:

1. Prestakuntza Zentroa
2. Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa
3. Dibulgazio Zentroa

1. Prestakuntza Zentroa.

Eskolak lehentasunezko helburutzat du zinemagileak prestatzea, zinemagile hitzaren zentzu zabalean eta zeharkakoan, zeinak gai izango diren iraganeko zinemaren aurrean jarri eta harekin era aktiboan erlazionatzeko (ikertzaile eta zaintzaile gisa), bai eta oraingo zinemarekin (komisario eta programatzaile gisa) eta etorkizuneko zinemarekin (sortzaile gisa) ere.

Bai ikasleen bai irakasleen ikuspegitik, eskolak nazioarteko profila du.

2. Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa.

EQZEren izaera definitzen duten hiru ezagutza arloei buruzko ikerketa eta berrikuntza da bere bigarren jarduera lerroa, hots, Artxiboa, Komisariotza eta Sorkuntza.

Ikerketa produkzioa hiru ildotan mamitzen da:

- Bere proiektuak abiaraztea eta finantzatzea.
- Kanpoko taldeetan parte hartzea, unibertsitateek, institutuek edo nazioko edo nazioarteko zentro publiko edo pribatuek aktibatuta.
- Ikertzaile gazteei laguntzea.

La actividad docente se articula a través de:

a) clases presenciales,
b) desarrollo de proyectos personales, y
c) prácticas profesionales.

La actividad docente se complementa además con el programa del Festival de San Sebastián, la programación pública regular de Tabakalera y otras acciones puntuales como visitas, master-classes, charlas y proyecciones.

Las lenguas vehiculares en docencia son el euskera, el castellano y el inglés.

La actividad de la EQZE, se centra, a su vez, en tres campos:

1. Centro de Formación
2. Centro de Investigación e Innovación
3. Centro de Divulgación

1. Centro de Formación.

La escuela tiene por objetivo prioritario la formación de cineastas en sentido amplio y transversal del término, que puedan confrontarse e interrelacionarse activamente con el cine del pasado (como investigadores y preservadores), con el cine del presente (como comisarios y programadores) y con el cine del futuro (como creadores).

Tanto desde el punto de vista del alumnado como del profesorado, la escuela tiene un perfil internacional.

2. Centro de Investigación e Innovación.

La segunda línea de actividad de EQZE es la investigación y la innovación en torno a las tres áreas de conocimiento que definen su identidad: Archivo, Comisariado y Creación.

La producción investigadora, se concreta en:

- Puesta en marcha y financiación de proyectos propios.
- Participación en equipos externos, activados por universidades, institutos o centros públicos o privados nacionales o internacionales.
- Apoyo a jóvenes investigadores/as.

EQZEren ikerketa esparruak honako hauek barne hartzen ditu:

- Zinearekin zerikusia duen berrikuntza pedagogikoa.
- Artxibo, komisariotza eta sorkuntza zinematografikoari buruzko hurbilketa teoriko eta tekniko berritzaileen garapena.
- Zinemaren eta bestelako diziplina zientifiko, humanista eta estetikoen arteko lotura.
- Euskal zinearekiko eta zentroa sortu den eta kokaturik dagoen kulturarekiko harremana.

Ikerketa proiektuen emaitzak irakaskuntzaren kalitatean islatzen dira eta gizartean begirada kritikoak garatzen laguntzen dute.

3. Dibulgazio Zentroa.

EQZEren hirugarren jarduera lerroa edukiak eta jarduerak jendartean zabaltzea da, hala filmen artxiboekin eta jarduerekin zerikusia dutenak, nola komisariotzarekin eta ikus-entzunezkoen programazioarekin eta sorkuntza zinematografikoarekin loturikoak.

Eta orobat bere jarduerak, filosofia eta izateko arrazoia zabaltzea, eta baita komunikazioa, ikasleak erakartzea, prestigiodun profesionalak eta erakundeak proiektuan sartzea eta proiektuaren hurbileko bazkide berriak bilatzea ere.

Los campos de investigación de EQZE se centran en:

- la innovación pedagógica relacionada con el cine,
- el desarrollo de aproximaciones teóricas y técnicas novedosas sobre el archivo, el comisariado y la creación cinematográfica,
- la interconexión del cine con otras disciplinas científicas, humanísticas y estéticas, y
- la relación con el cine vasco y la cultura en la que el centro ha surgido y se asienta.

Los resultados de los proyectos de investigación revierten en la calidad de la docencia y en el desarrollo de miradas críticas en la sociedad.

3. Centro de Divulgación.

La tercera línea de actividad de EQZE es la divulgación pública de contenidos y actividades relacionadas con el archivo y la preservación fílmica, el comisariado y la programación audiovisual y la creación cinematográfica.

Y también la difusión de sus actividades, de su filosofía y razón de ser, así como la comunicación, la captación de alumnado, la involucración en el proyecto de profesionales e instituciones de prestigio y la búsqueda de nuevos socios afines al proyecto.

KONTRATUAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK

OBJETO Y CARACTERISTICAS DEL CONTRATO

1. ZERBITZUAREN XEDEA

“Elias Querejeta Zine Eskola - EQZE" zine eskolaren Zuzendaritza Akademikoa.

Zuzendaritza akademikoa profesional baten ardurapean egongo da, honakoak izanik bere ardura nagusiak: eskolako ikasleei eta irakasleei zerbitzu akademikoak ematea eta beste erakunde nahiz irakaskuntzaz kanpoko langileekin koordinazio eta gizarte lana egitea.

Hurrengo atalean zehazten dira egin beharreko zerbitzuak.

1. OBJETO DEL SERVICIO

Dirección Académica de la Escuela de Cine “Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE”.

La Dirección Académica estará a cargo de un profesional encargado de prestar servicios de orden académico a los estudiantes y docentes de la Escuela, así como realizar las labores de coordinación y sociales que se hacen extensivas a otras entidades y personal no docente.

Los servicios se concretan en el siguiente apartado.

2. EGINKIZUNEN DESKRIBAPENA

A.- OROKORRAK

1. Proiektua kontzeptualizatzea, ildo estrategikoak definitzea eta EQZEren identitatearekin bat etorriz garatzea.

2. Metodologia pedagogikoa, irakaskuntza-planak eta programa akademikoak definitzea eta zuzentzea.

3. EQZE ikerketa zinematografikoko zentro gisa ikertzeko eta artikulatzeko mapa definitzea eta zuzentzea.

4. Zuzendari akademiko gisa parte hartzea EQZEko gobernu-, akademia- eta kudeaketa-organoen aurrean.

5. Erakunde akademiko eta profesionalen aurrean ordezkaritza izatea.

6. Komunikazio-lanak.

7. Ikasleen hautaketa eta arreta.

B.- AKADEMIKOAK

Kontratuaren arduradunak gainbegiratuta, EQZEren esparru akademikoari dagozkion zuzendaritza eta koordinazio lanak bere gain hartuko ditu, eta beraz, honako zerbitzu arlo hauek:

i. Proiektu pedagogiko-zinematografikoa egitea eta garatzea.

ii. EQZEk egindako jarduera akademikoak koordinatzea eta gainbegiratzea

iii. Bere eginkizunari buruzko memoriak eta dokumentu teknikoak egitea.

Horretarako:

→ Proiektu pedagogikoa behar bezala garatzeko komenigarrienak iruditzen zaizkion irakasleen proposamenak egingo ditu.

2. DESCRIPCION DE LAS TAREAS

A.- GENERALES

1. Conceptualización del proyecto, definición de las líneas estratégicas y su desarrollo de modo coherente con la identidad de EQZE.

2. Definición y dirección de la metodología pedagógica, planes docentes y programas académicos.

3. Definición y dirección del mapa de investigación y articulación de EQZE como centro de investigación cinematográfica.

4. Participación en calidad de director académico ante los órganos de gobierno, académicos y de gestión, de EQZE.

5. Representación ante organismos académicos y profesionales.

6. Labores de comunicación.

7. Selección y atención al alumnado.

B.- ACADÉMICAS

Bajo la supervisión del responsable del contrato, asumirá las labores directivas y de coordinación en todo lo referente al ámbito académico de la EQZE, haciéndose cargo de las siguientes áreas de servicios:

i. Elaboración y desarrollo del proyecto pedagógico-cinematográfico.

ii. Coordinación y supervisión de las actividades académicas realizadas por la EQZE

iii. Elaboración de memorias y documentos técnicos relativos a su función.

Para ello:

→ Realizará propuestas de profesorado que considere más conveniente para el desarrollo óptimo del proyecto pedagógico.

→ EQZEren harremanak honako hauekin mantenduko ditu:
  - Irakasleak eta hizlariak,
  - Erakunde laguntzaileak edo babesleak, eta
  - Beste erakunde akademiko batzuk, unibertsitateak, etab.

→ EQZE kudeatzen duen enpresarekin lankidetzan arituko da zuzenean.

→ Ikasleak hautatzeko prozesuetan parte hartuko du, eta

→ Bere karguari dagozkion beste zeregin guztiak egingo ditu.

C.- ORDEZKARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publikorik edo arduradun diren langilerik ez badago, EQZEko ordezkaritza lanak egingo ditu.

Horretarako:

→ komunikazio-lanetan parte hartuko du.

→ EQZEren gobernu eta kudeaketa organoen aurrean parte hartuko du.

→ Babesleak bilatzen parte hartuko du.

3. EZAUGARRIAK

Kontratuaren xedea betetzeko kalkulatutako urteko ordu-kopurua 1.700 ordu ingurukoa da.

Zerbitzua EQZEren instalazioetan bertan emango da, gutxienez %70ean.

→ Mantendrá las relaciones de la EQZE con:
  - los profesores y conferenciantes,
  - entidades colaboradoras o patrocinadores, y
  - otras entidades académicas, universidades, etc.

→ Colaborará directamente con la empresa gestora de la EQZE.

→ Participará en los procesos de selección del alumnado, y

→ Realizará cuantas otras tareas sean inherentes a su cargo.

C.- REPRESENTACIÓN

En ausencia de cargos públicos o personal responsable de la Diputación Foral de Gipuzkoa asumirá las labores de representación de la EQZE.

Para ello:

→ Participará en las labores de comunicación.

→ Participará ante los órganos de gobierno, y de gestión de la EQZE.

→ Participará en la búsqueda de patrocinadores.

3. CARACTERISTICAS

El número de horas anual estimado para la realización del objeto del contrato es de aproximadamente 1.700 horas.

La prestación del servicio será presencial en las propias instalaciones de la EQZE, al menos en un 70%

Donostia – San Sebastián, a 12 de abril de 2021.

El Jefe de Servicio de Promoción y Difusión Cultural,

Fdo: Patxi Presa Lastra.